

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0054	Foru egoitzen zerbitzuari lotutario prestazio ekonomikoari dagozkion zenbatekoak ordaintzeko eskaera
---	---------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Xedea egoitza-zentro bati emandako arretaren ondoriozko gastuak estaltzea da, aldi baterako egonaldia izan edo etengabekoa izan.

Prestazioa aldian behingoa izango da, eta mendeko adinduentzako foru egoitzen zerbitzu publikoa lortu ezin denean edo adindunentzako foru egoitzen zerbitzu publikoan sartutako zentroan sartu ezin direnean baino ez da onartuko.

NORK ESKA DEZAKE?

- Mendkotasuna duten adineko pertsonentzako foru egoitzen zerbitzu publikoan plaza baten onuraduna izatea onartu zaien pertsonak.
- Desgaitasuna duten 60 urtetik beherako pertsonak, foru agindu bidez deklaraturako itzarote-zerrendan daudenak.
- Bai aldi baterako egonaldirako bai egonaldi iraunkorrerako eskubidea onara daiteke.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E115 Mendetasun egoeran dauden pertsonentzako egoitzen zerbitzuari loturiko prestazioa](#)

Egoitza-zentruak igorritako faktura.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Ez du kosturik

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Hilabete 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Bizkaiko Foru Aldundiaren 157/2016 Foru Dekretua, urriaren 31koa, zeinaren bitartez arautzen baita mendetasuna duten pertsonentzako foru egoitzen zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

- Faktura Bizkaiko Foru Aldundira - Gizarte Ekintza bidali (Lersundi, 14 48009)

NORK ONARTU BEHAR DU?

Bizkaiko Foru Aldundia

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Gizarte ekintza - Gizarte Zerbitzuak

OHARRAK

Kopuruak hila amaitutakoan ordainduko dira, faktura aurkeztu ondoren, hurrengo hileko azken eguna pasatu baino lehen. Hala egin ezean, interesdunak aldi horretarako prestazio ekonomikoari uko egin diola pentsatuko da.